




tolosaldeko
ataria

Dekorazio gehigarria



Bizi uzekoa

2019-10-17
107.6 fm
www.ataria.eus

AZALA: IBAI LUQUE | TESTU ETA ARGAZKIAK: IRATI URDALLETA LETE



OSTEGUNA, 2019KO URRIAK 17
Argitaratzailea:
Tolosaldeko Komunikazio Taldea SM
Lege Gordailua: SS-1323-2013
Koordinatzailea:
Rebeka Calvo Gonzalez.
Kudeatzailea: Iban Urdapilleta Alkizalete.
Egoitza: San Esteban, 20, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95.
E-posta: ataria@ataria.eus
Publizitatea: 661 678 818.publi@ataria.eus

Tolosa: 687 410 082. tolosa@ataria.eus
Villabona-Aiztondo: 687 410 022.
villabona-aiztondo@ataria.eus
Anoetaidea: 687 410 022.
anoetaidea@ataria.eus
Ibarraldea: 687 410 118.
ibarraldea@ataria.eus
Alegialdea: 687 410 034.
alegialdea@ataria.eus
Kirolak: 673 06 11 32. kirolak@ataria.eus
Bezero arreta zerbitzua: **943 30 43 46**



www.ataria.eus **ATARIA IRRATIA**
107.6 FM

Tolosaldeko Ataria diruz laguntzen duten erakundeak:
Udalak: Abaltzisketa, Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketeta, Anoeta, Asteasu, Balarriain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidania-Goiatz, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Leaburu-Txarama, Lizartza, Orendain, Orexa, Tolosa, Amasa-Villabona eta Zizurkil



San Inazio, 2 • 20400 Tolosa
943 65 17 61
muñazabal@muñazabal.com



BIZITZEKO

Dekorazioa ez da espazio bat antolatzea edo betetzea bakarrik, harago doa. Etxebizitza bakoitzaren babeslekua da, zentzurik zabalenean, eta horregatik pertsona bakoitza bere gustuen arabera egiten saiatzen da, eta horretan laguntzen dute gehigarri honetan parte hartu duten profesionalak. Sukalde eta bainugeletako altzariak, etxeko lurrak, leihoek, apaingarriak... ha-maika elementuak egiten dute etxebizitza bat berezi, baita aukeratzen den berokuntza sistemak edo argiztapenak ere. Detaile guztiek dute garrantzia. Aukera asko daude merkatuan, baina etxebizitza bat bakoitzaren gustuen arabera eraikitzeko ezinbestekoa da profesionalen aholkularitza. Etxebizitza bizitzekoa delako, egunero-egunero eroso, lasai eta gustura egoteko moduko espazioa izan behar du, eta ondorengo orrietan horretan lagunduko dizugu.

ILUMINAZIOA & INSTALAKUNTZA



«Pelleta da berokuntza sistemetarako dauden erregaietan ekologikoenetakoa»

NATURBERO

Modu ekologiko batean beroa lortzeko aukera eskaintzen dute Naturberon. Bertan, pelleta egiten dute eta gero eta jende gehiagok aukeratzen du egurretik datorren erregai natural hau bere etxea edo negozia berotzeko.

Zer da zehazki saltzen duzuen?

Zuretik eratorritako erregaitarako produktua saltzen ditugu orokorrean eta zehazki ezpala. Industria-galdaretan, negutegietan eta abar erabili daitezke. Hala ere, gure produktu nagusia pelleta da. Badira urte batzuk merkatu hau garatzen hasi ginela, egun, kalitatezko produktu bat izatea ahalbidetuz. Honen seinale da Euskal Herri mailan lehenetarikoa izatea DINPLUS ziurtagiria eskuratzeko, eta iaiztik pauso bat gehiago eman dugu, PEFC ziurtagiriarekin. Pelleta egiteko erabiltzen dugun materiala zerrategietan sortzen den zerrautsetatik eratzen dugu. Era honetara, zuraren ziklo osoa ixten dugu. Ondoren, hainbat modutan saltzen dugu: *big-bagetan*, paletetan, 15 kiloko zaku indibidualetan eta kamioi zisterna bidez.

Nolako ezaugarriak ditu?

Bere ezaugarri nagusia berotze ahalmen handia izatea da, eta berokuntza sistemetarako dauden erregaiekin ekologikoen artean dago. Esan daiteke biomasa mota normalizatu bakarra dela, gasaren eta gasolioaren berotzeko gaitasunarekin konparatu daitekeen bakarra delako. DINPLUS ziurtagiriaren arabera gurea 4,6koa da gutxi gora behera.

Nondik sortzen da zuen pelleta?

Zerrategietako zerrautsetan du jatorria eta errota eta prentsa baten bidez sortzen den produktua da.

Ekologikoagoa da, ezta?

Esan bezala, berokuntza sistemetarako dauden erregaietan ekologikoenetakoa da, eta bere ekoizpena eta kontsumoa bertatik bertara egiten bada aukera ezin hobea izan daiteke gutxiago kutsatzeko. Azkenaldian hain presente dugun klima aldaketaren aurka pauso garrantzitsu bat ematea litzateke. Zerratokietako 'soberakina' baliatzen da energia sortzeko, berriztagarria da, distantzia laburretan egiten da eta kanpoko energia iturrien dependentzia murrizten du.

Bestalde, PEFC ziurtagiriak irizpideak eta tokian tokiko adierazleak diren neurriak betetzen ditugula bermatzen du. Esaterako, inoiz ez dugula erabiliko lege kontrako zuhaitz mozketetatik eta basoetatik, bestelako erabiltzenerako eraldatutako basoetatik,



genetikoki modifikatu diren organismoetatik, balio handiko kontserbaziorako baso suntsipen lanetatik edo langileei eskubideak urratzen dizkieten herrialde eta landaketetatik ateratako lehengairik.

Non erosi daiteke zuen pelleta?

www.naturbero.com webgunean, 678 157 083 telefonora deituta edo Adunako Uparan industrialdeko 2. zenbakian daukagun gunean.

Geroz eta jende gehiagok berotzen du bere etxea pellet bidez?

Baietz esango genuke, baina egia da kaleko etxetan hau egiteak eragozpen gehiago dituela. Ez da baserri edo etxebizitza isolatu batean bezala. Azken hauetan aukera daukazu etxe osoko beroketa sistema eta ura pelletarekin berotzeko, normalean, leku gehiago izaten delako kaleko etxebizitzetan baino, silo bat jartzeko.

Etxebizitza multzo oso batek pelleta kontsumitzen hasi nahiko balu, silo bat jartzeko lekurik ez du izaten normalean. Etxegintza eta hirigintzarako orokorrean interesgarria izango litzateke etxebizitzak modu honetan diseinatzea.



Prezioz alde handia al dauka egurrekin edo bestelako erregaiekin konparatuz gero?

Berotze ahalmena da kontuan izan behar dena alderaketa egiteko, eta, esan daiteke, gasa eta gasolioarekin alderatuz, pelletarekin %40a aurreztu daitekeela. Zuraren kasuan, zuhaitz bakoitzaren egurrak berotze ahalmen jakin bat du. Kontsumitzaileak erabakiko du zein den bere kasuan hoberena, eskura duen hori zein preziotan duen... Kontsumo arduratsu batek ere eragingo du azken kostuan, dena baloratu behar da eta etxearen isolamendua ere kontuan izan beharreko faktore oso garrantzitsu bat da. Beraz, faktore desberdinak hartu behar dira kontuan. Hala ere, ziurtatu dezakegu pelletaren aldeko apustua egiteak onura asko dituela eta gure pelleta bada, askoz hobeto.

Non erabili daiteke?

Galdaratan (etxeak, industrialak...), bergailuetan, labeetan, sukaldeetan gure aitona amonek zituzten antzeko ekonomiketan, baita pelleta erabiltzen dutenetan... Gaur egun, izugarritzko aukera dago edozein sistema jarri nahi izanda ere, eta gustu guztietara-

ko sistemak daude. Entsegu batzuk egin dira elektrizitatea sortzeko eta ibilgailuen erregai bezala. Era askotako bezeroak ditugu: etxebizitzak, eskolak, kiroldegia, landetxeak, negutegiak, industria, nekazari elkarteak...

Beste zerbaite gehitu nahi al duzue?

Momenturen batean norbait pelleta kontsumitzea burutik pasatzen bazaio eta ez badaki nora jo instalazioa egin behar duelako eta horrek kezka sortzen diolako, ideia hori alde batera ez uzteko esan nahi diogu, guk emango dizkiogulako argibideak edota behar duen horrekin harremanetan jarriko dugulako.

Galdara jarri nahi bada nolako silo mota jarri behar den kontuan izatea garrantzitsua da, esate baterako, garraioaren prezioan eragin dezakelako. Siloa jarri baino lehen pellet ekoizleekin kontaktuan jartzea gomendatzen dugu, silo txikia jartzen bada garraioa garestituko delako, ziurrenik. Altuera handiegian jartzen bada, berriz, deskarga pneumatikoak arazoak sortu ditzake eta eskuz igo behar balitz, horrek ere garestitu dezake pelletaren prezioa. Gauza asko hartu behar dira kontuan. Zentzuzkoak izan eta kontzientzia badugu, ez genioke pelletaren prezioari soilik kontu egin beharko. Karbono aztarnari dagokionez, urrutitik datorren pellet merkeagoak aztarna handiagoa eragin dezake, distantziaren arabera gehiago edo gutxiago kutsatzen ariko garelako eta, beraz, ingurumenean eragiten. Etorikizun ez hain urrunean izango ditugun erronkak gaintitzen lagunduko digun apustua egin dugu Naturberon eta irakurleak ere bat egitera gonbidatzen ditugu.



NATURBERO

Helbidea. Uparan industrialdea, 2, Aduna.

Telefono zenbakia. 678 15 70 83

Sare sozialak.

Facebook: Naturbero

Twitter: @naturbero

Instagram: naturbero

Webgunea. www.naturbero.com

E-maila. info@naturbero.eus

NEURRIRA EGINDAKO ALTZARIAK

Sarri egurra produktu klasikoekin lotzen bada ere, hori apurtzen dute Apatta aroztegiak.



Gero eta kontzientzia gehiago dago material jasangarriak erabiltzeko eta estetika naturala ere modan dagoenez, egurra modan dagoela esan daiteke. Horretaz ziur daude Apatta aroztegiak. Gaur egun bi belaunaldi ari dira bertan lanean. 2005an ireki zituen ateak Apatta aroztegiak, baina bizi guztia daramate egurrari lotuta. Egurrezko edozein elementu egiten dituzte, guztiak neurrira eta bezeroaren behar nahiz aurrekontura egokituta. Kanpoko arotz lanak (leihoak, ateak, egiturak...) nahiz barrukoak (lurrak, eskailerak, armairuak, sukaldeak...) egiten dituzte. Gaur egun, egurra ez

diren materialeekin ere lan asko egiten da, egurretik eratorritakoekin nahiz Solid Surface materialekin, batez ere, sukaldeak eta bainugelak, ezaugarri ezin egokiagoak baititu toki hezetarako eta garbitzeko oso erraza baita.

Apattaren bereizgarriak dira neurrira egindako altzariak eta proiektuak. Sarri egurra produktu klasikoekin lotzen bada ere, hori apurtzen dute Apatta aroztegiak. Izan ere, frisoetan kamuflatutako ateak edo lurretik sabairainoko ateak ere jartzen dituzte, lortu nahi den sentsazioaren arabera.

Bezeroen artean ere aniztasuna daukate. Arkitektoak nahiz dekoratzaileak joaten

zaizkie, beraien produktuen bila, baina norbanakoek ere ematen diete beraien konfiantza. «Arkitektoek eta dekoratzaileek ideiak oso argi edukitzen dituzte normalean. Norbanakoek, aldiz, ideiak argi izan arren, aholku gehiago eskatzen digute, normalean den bezala, ez baita beraien egunerokoa eta horretarako gaude gainera», azaldu dute. Denetariko bezeroak izanda, lan esparrua ere oso zabala da: «Etxebizitzetan ez ezik dendetan, tabernetan, ikastetxeetan zein leku publikoetan ere lan asko egiten dugu».

Behin ideiak argituta, produktuak aukeratzeko garaia izaten da. Material askorekin lan egiten dutenez, bezeroek ideiak hartzeko eta buruan daukaten hori gauzatzeko, beharrezkoa da Apatta industrialdean daukaten erakusketa ere. Horrela, bezeroek materialak ukitzeko eta ikusteko aukera daukate. Gainera, proiektua egingo den lekura ere joaten dira, aholkuak ematen dituzte eta ikusten dute bezeroak buruan daukan hori egin daitekeen ala ez. Horren arabera, neurriak hartzen dituzte eta aurrekontu bat prestatzen dute. Behin tailerreko lanak bukatuta, produktu guztiak prest ditzutenean, muntatzeaz ere Apattako adituak arduratzen dira.

Ahal den neurrian, prozesu guztia teknologia berrietara egokitzen saiatu dira. «Tailerreko makineriaren aldetik, asko aldatu da. Gaur egun, kontrol mekanizatuak daukagu eta gero eta gehiago egiten dugu lan ordenagailu bidez». Hala ere, eskulan asko daukan ofizioa izaten jarraitzen du arotzarenak. Prozesu guztiari balioa ematen saiatzen dira, ez produktuari bakarrik. «Balioan

jarri behar ditugu zerbitzuak, izan ere lekura joaten gara neurriak hartzera, aholkularitza eskaintzen dugu, materialen kalitatea bermatzen da, muntaketa lanak egiten ditugu eta nola ez arazoren bat dagoenean irtenbidea emateko hor izaten gara».

Gaur egun oraindik ere zuriaren eta egurraren arteko konbinazioa da nagusi. «Egurraren bukaerak ere, tonu argitara jotzen dute, bernizak ahalik eta naturalenak ematen dira, egurrak tonurik har ez dezan. Produktuaren naturaltasuna eta gordintasuna bilatzen da. Egurraren 'inperfekzio' eta guzti, arbegi, zurgitzen...». Horrela, bat egiten dute egurrak ematen duen goxotasunak eta zuriaren argitasunak.

Apatta aroztegiaren produktuetan interesa daukan edonork telefonoz deitu dezake 943 679 810 zenbakira edo e-mail bat bidali adieraziz zein den bere asmoa. Batez ere, Gipuzkoa mailan lan egiten badute ere, Bizkaira, Arabara eta Nafarroara ere mugitzen dira. Orain arte egin duten bezala, aurrerantzean ere berritzen eta ikasten jarraitzeko asmoa daukate: «Material aldaketak datoz eta ea gure hornitzaileek zer aurkeztu diguten». Izan ere, eguneratuta egotea beharrezkoa da, eta arkitektoekin nahiz dekoratzaileekin lan asko egiteak horretara bultzatzen ditu.

APATTA AROZTEGIA

Helbidea. Apatta industrialdea, Baratzondo kalea, E-33, Ibarra.

Telefono zenbakia. 943 67 98 10

E-maila. aroztegia@apatta.es

Webgunea. www.apatta.eus



Luyher



Zure ideiak fabrikatzen ditugu · Fabricamos tus ideas



ZURE ETXEA BERPIZTEN DUGU

Altzarien fabrikazioan, salmentan eta instalakuntzan gara adituak. Gure diseinatzaile taldeak aholkularitza pertsonalizatua eskaintzen du.

BIZITZA ERRAZTEN DUTEN DETAILIAK

Neurketa, plano eta irudikapen lanak egiten ditugu. Prozesu guztiak kontrolatzen ditugu: fabrikazioa gure Urrietako ekoizpen gunean, salmenta eta produktuen muntaia.



Rondilla kalea, 42, 20400 Tolosa
(Gipuzkoa) 943 65 25 34
info@luyher.com www.luyher.com

BEZEROAREN NEURRIRA

Alkain enpresak Gipuzkoako erakusketa aretorik handiena du. Astigarragan eta Hondarribian ditu dendak, eta etxebizitza berri-
tzeko, dekoratzeko edota eraldatzeko beharrezkoa den guztia dute.



Alkain enpresa ez da berria. 1951. urtetik ari dira lanean eta esperientzia zabala dute etxebizitzaren berritze edota konponketetan. Zeramika eta eraikuntzarako materialak saldutz hasi ziren lanean, eta gaur egun, brikolajerako aukera zabala dute, burdindegiz zabala eta baita eraikuntzarako material ugari ere. Horri guztiari sukalde eta bainugeletan duten eskaintza aberatsa gehitu behar zaio.

Material guztia Hondarribiko eta Astigarragako zentroetan dute eta Donostiatik bost minutura 2.800 metro karratu dituen erakusketa aretoa dute, Gipuzkoako handiena. Burdindegiko eskaintza berri dute eta erakusketa aretoan etxebizitza bat berritzeko, eraberritzeko edota itxuraldatzeko beharrezkoa den guztia dute: zeramika, bainugeletarako altzariak, komunak, txorrotak, sukalderako altzariak, etxetresna elektrikoak, egurrezko zoruak, etxebizitza barrurako zein kanpoalderako atea, PVC leihoak, erremintak, aroztegiko materiala, lorategietarako erremintak...

Laguntza eta aholkularitza

Bada Alkainen bereziki zaintzen duten zer-bait: aholkularitza. «Bezeari nahi duen hori ematen saiatzen gara. Bilatzen duen hori aurkitzen laguntzen diogu».

Helburu hori lortzeko aholkularitza zerbitzua eskaintzen dute eta beharren araberrako irtenbideak eskaintzen dituzte, modu guztietako aurrekontu eta nahien arabera.

«Bezearoak barneen diseinatzaileei zein arkitektoei behar edo nahi duen hori zer den esan behar die, hori bakarrik. Adituak dira eta beraiek aurkeztuko dizkie ideiak, egokiena dena aukeratu ahal izateko».

Alkainen pertsonalitatea zaintzen saiatzen dira, bezeroei neurritan egindako proposamenak eskainiz. «Dekoratzailerak eta saltzaileek proposamen zehatz eta bakarrak eskaintzen dituzte. Kalitatea zaintzen dugu eta beharren araberrako proposamenak egiten ditugu».

Nahi al duzu kafe bat?

Alkain enpresako erakustokia bisitatzea, bisita huts bat baino gehiago da. Esperientzia bat eskaintzen dute.

Hara joanda kafe bat eskaintzen dute, eta kizararen bueltan, pisu pilotuan, 3D teknologiari esker etxebizitzaren eraberritzea erakusten dute, lanean hasi beharrik gabe. Momentu atsegin bat pasatzeaz gain, argaz-

ki erakusketa berezi bat ikusi ahal da edota arte galeriako lanak. Era berean, tarteka, Michelin izarrak dituzten sukaldari ospetsuen bisitak izaten dituzte, eta bertan parte hartu ahal da, eta kontzertu akustikoak ere antolatzen dituzte.

Klub bat ere badute; Club Alkain-eko partaide izanez gero, eskaintza berezi eta pertsonalizatuak jaso ahal dira, Michelin izarra duten sukaldarien ikastaroetara joan ahal izateko doako txartelak...

Gipuzkoa

Alkain Gipuzkoako enpresa bat da eta hain justu, hori da beraien ezaugarrietako bat: bertakoak direla eta bertakoa defendatu nahi dutela, nazioarteko frankizien aurrean. 100 pertsona baino gehiagok osatzen dute lantaldea, eta ahal dela bertako hornitzaileekin egiten dute lan.

«Alkainen eskaintza zabal eta bereziak harritu zaitu? Gerturatu, eta gehiago harrituko zara».

ALKAIN

Alkain Hondarribia.

Helbidea: Amutalde kalea, 21, Hondarribia.

Telefono zenbakia: 943 64 20 25

Alkain Astigarraga.

Helbidea: Txalaka pasealekua, 23, Astigarraga.

Telefono zenbakia: 943 64 20 25

Sare sozialak.

Facebook: Alkain

Instagram: alkain_hogar

E-maila: info@alkain.com

Webgunea: www.alkain.com



ETXEA • BRIKOLAJEA • SUKALDEA • ERAIKUNTZA • ALKAIN.COM

ONGI ETORRI ZURE ETXERA

2.500 m² ERAKUSKETA DONOSTIATIK 5 MINUTURA



ALKAIN

zure etxean pentsatzen
piensa en tu casa

